



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

Epaimahaiaren agiria

EUSKARAZ GAZTE 23. literatur lehiaketaren epaimahaia 2016ko azaroaren 30ean elkartu zen Orioko kultur etxean. Epaimahaia honako hauek osatu dute: Olatz Artola, Karkara aldizkariaren izenean; Eli Lasa, Aiako Udaleko kultur teknikariak; eta Jabier Zabaleta, Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikariak.

Hasi nahi dugu esaten aurtengoa uzta oneko urtea izan dela lehiaketa honentzat eta aurreko edizioetan baino lan gehiago aurkeztu direla. Gainera, epaimahaikoen iritziak, lanen batez besteko kalitatea ere ona izan da eta, horren froga da aurten sari eta accesit guztiak eman ditugula, bat bera ere hutsik laga gabe. Pozik egotekoa da eta hala gaude. Aurten, gainera, nabarmentzekoa da jende berria ere animatu dela parte hartzera. Ahots berriak, kontakizun eta kontaera berriak... Batzuek saria jaso dute eta beste batzuk hortxe geratu dira, atarian... Espero dugu datozen urteetan ere segituko dutela idazten eta lehiaketan parte hartzen, badaukate-eta zer eskaini.

Lehiaketara aurkeztutako lanak banan-banan aztertu ditu epaimahaiak eta, iritziak trukatu eta eztabaidatu ondoren, honako sariak ematea erabaki du:

Ipuin saila

«**Ospea lortzeko bidea**» izeneko lanak irabazi du ipuin alorreko accesitetako bat. Ospetsu izan nahi duen pertsona baten burutazioak kontatzen ditu modu bizi eta txinpartatsuan. Esaldi motzak, umorearen erabilera egokia, gertuko erreferentzia ugari... Erraz eta gustura irakurtzen den ipuina idatzi du egileak eta beretzat dira 100 euroko saria eta oroitagiria. Datorrela jasotzera Arantzazu Otaegi.

Bigarren accesita, 100 euro eta oroitagiria, lan zeharo desberdin bati eman diogu. «**Akordeioia**» du izenburua eta istorio xume-xumea



ORIOKoudala

Euskaraz
bizi-bizi

kontatzen du: ikasle gaztea Oriora bueltan dator trenean unibertstatetik eta parean errumaniar bikote bat esertzen zaio. Haiekiko hasieran sentitzen duen mesfidantza hurbiltasuna bihurtzen da azkeneko, elkarrekin hizketan egin ahala. Istorio xumea oso ondo kontatzen du egileak eta ezagun du, oso gaztea bada ere, badakiela kontakizuna garatzen eta doinu eta hizkera egokia aukeratzen. 100 euroko saria du eta oroitagiria Alazne Arrutik.

Ipuin alorreko hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, lehiaketan aurreneko aldiz parte hartu duen neska bati eman diogu. Ipuin labur-laburra idatzi du, orri betekoa, di-da irakurtzen dena eta bukaeran irribarre zabalarekin uzten zaituen horietakoa. Gerlari gazte bat da protagonista, bere tigrearen laguntzaz dragoiak ausart borrokatzen dituena. Hauxe du izenburua: «**Gerlari handia**». Egilea Ane Etxabe Usandizaga da eta idazten segi dezan animatu nahi dugu, erakutsi du-eta ondo egiten duela. Datorrela saria jasotzera.

Josu Galdosek irabazi du ipuin alorreko bigarren saria, 200 euro eta oroitagiria, «**Basoko amona eta otsoa**» lanarekin. Josuk ederki idazten du, eta lehendik ere baditu lan batzuk argitaratuta. Gure lehiaketan ere parte hartu izan du inoiz eta guretzat pozgarria izan da berriro aurkeztu dela ikustea. Poesiarako abildade berezia du eta hori nabarmen erakusten du hitz lauz idazten duenean ere. Oraingo honetan ipuin tradizionalen itxura eta elementuak erabili ditu bere kontakizunean eta oso giro berezia sortu du, batez ere darabilen hizkera poetikoari esker. Asko gustatu zaigu. Etorri Josu, mesedez, saria jasotzera.

Aurtengo lehendabiziko saria, 300 euro eta oroitagiria, «**San Sebastian eguneko gaupasa**» izeneko ipuinak irabazi du. Egilea guztiok ezagutzen duzue, askotan irabazi du-eta lehiaketa hau; baina oraingo honetan harritu igual egingo zarete idatzi duen ipuina irakurrita, orain artekoetatik oso desberdina da-eta. Gizon elbarri baten paperean jartzen da egilea eta lehen pertsonan kontatzen du San Sebastian egunean parrandara atera eta gertatzen zaizkion gorabeherak. Gorabehera petralak dira, baina egileak asmatzen du horiek umorez kontatzen, berezkoa duen euskara egokian. Gustatu



ORIOKOUNDALA

Euskaraz
bizi-bizi

zaigu egilearen erregistro-aldaketa eta bide horretan sakontzera animatu nahi dugu, atrebentzia ez bada. Ipuinarekin 300 euroko saria irabazi du, eta oroitagiria. Datorrela jasotzera: Iñaki Iturain.

Olerki saila

Epaimahaiak «**Potoloaren bakardadea**» izeneko bertso-sortari eman dio bi accesitetako bat. Mutil potolo baten gorabeherak kantatzen ditu egileak ondo jositako sei bertsoetan: bakardadea, maitasun-falta, osasunaren kezka... ditu kantagai lehen hiru bertsoetan; eta arazo gisa bizi duen horri nola buelta ematen dion kantatzen du, berriz, azken hiruetan. Egileak askotan irabazi ditu sariak gure lehiaketa honetan eta eskertzen diogu urtero egiten duen ahalegina. Olerki honekin 100 euroko saria eta oroitagiria irabazi ditu Garazi Urretabizkaiak.

Beste accessita «**Udaberriko lore**» bertso-sortak irabazi du. Egilea ama izan berria da eta bertsoetan kontatzen du nola jaio zen bere 'udaberriko lorea'. Benetako kontakizuna izateak aparteko balioa ematen die bertso hauei, eta seguru gaude haur horrek gustura eta harro irakurriko dituela bere amaren bertsoak garaia etortzen zaionean. Egileak lehiaketa honetara aurkezten duen lehendabiziko lana da eta espero dugu azkena ez izatea. 100 euroko saria eta oroitagiria jasoko ditu Ainhoa Mateosek.

Olerki eta bertsoetako hirugarren saria, 150 euro eta oroitagiria, «**Ibilerak**» izeneko olerkiak irabazi du. Egileak 'herri baten ibilerak' kontatzen ditu. Herria gure hau da, jakina, eta olerkariak asmatzen du Orioko egunerokotasuna islatzen, elkarrekin zerikusirik ez dutela ematen duten pintzelkadatan. Xume-xume, hitz handirik erabili beharrik gabe, pintzelkadaz pintzelkada, Orioko erretratu polita marraztu digu Alazne Arrutik.

200 euroko bigarren saria irabazi du «**Bertso berriak Errikotxiako kuadrillari jarriak**» izeneko bertso-sortak eta egileak ederki



ORIOKOU DALA



erakutsi du, berriz ere, baduela txispa eta ofizioa bertso idatziak jartzeko. Oraingo honetan Errikotxia bertsozale elkarteko lagunei jarri dizkie bertsoak eta sortuko dute, seguru gaude, komentario bat baino gehiago bertan izendatzen direnen artean. Banan-banan aipatzen ditu elkarteko kideak eta badu denentzat ziriren bat. Bertso-sorta umoretsua da, talde —egilearen esanetan— ‘bitxi’ batentzat. Errikotxia bertsolaria bera gustura ariko zela taldean esaten du bukaeran eta zalantzarik ez dugu horretan. Gustura entzungo dituzue Iñaki Iturainen bertso hauek.

Aurtengo lehiaketaren lehen saria, olerki eta bertsoan, «**Naizen desertuan**» izeneko olerkiak irabazi du. Bereak dira 300 euro eta oroitagiria. Sentimendu handiko olerkia da eta gure baitako desertua du hizpide. Kontatzeko modu liriko ederraz baliatuta, egileak bere baitan sumatzen duen desertuak sortzen dizkion galderak azaltzen ditu hasieran eta, ondoren, ‘desertuko gizonarekin’ nola topo egiten duen eta hark esandakoek nola bihotza goxatzen dioten, ‘malko gozoak’ isurtzeraino.

Egilearen izena: Josu Galdos.

Orio, 2016ko abenduaren 3a.